

MESOPOTAMIA

IKUSI BIDEO HAU:

ADIERAZI EGIA ALA GEZURRA DEN:

- | | | |
|--|------|---------|
| • Mesopotamia hitzak bi mendiren artean esan nahi du. | Egia | Gezurra |
| • Mesopotamia K.a. 4000 urte inguruan sortu zen. | Egia | Gezurra |
| • Mesopotamiako inperioa Asian aurkitzen zen. | Egia | Gezurra |
| • Mesopotamia Eufrates eta Tigris ibaien artean aurkitzen zen. | Egia | Gezurra |
| • Mesopotamia gaur egungo Iraken aurkitzen da. | Egia | Gezurra |
| • Mesopotamiako hiri garrantzitsuenak Ur, Uruq eta Lagash ziren. | Egia | Gezurra |

NOLAKOAK ZIREN HIRIAK HASIERAN? AUKERATU BI ERANTZUNETATIK BAT.

a) Hasierako hiriak independienteak ziren, hau da, ez zeukaten elkarren arteko loturarik eta hiri bakoitzean agintari bat zegoen.

b) Hasierako hiriak ez ziren independienteak, hau da, hiri guztietan errege berdinak agintzen zuen.

a) Hasierak hiriak harresiz inguratuta zuten eta erdian Zigurat izeneko tenplu bat zuten.

b) Hasierako hiriak ez zeuden harresiz inguratuta eta izkina batean Zigurat izeneko tenplu bat zuten.

a) Ziguratetik merkataritza, uzta (cosechas) eta zergak (impuestos) kontrolatzen zituzten.

b) Ziguratetik, merkataritza, arrantza eta alboko herriak kontrolatzen zituzten.

ZERGATIK ZIREN GARRANTZITSUAK IBAIAK?

- a) Ibaiek ez zuten garrantzirik.
- b) Animaliak elikatzen zituztelako.
- c) Uzta eta animalientzat behar zutelako, baita herritarrek edateko ere.
- d) Ura gizakiek edateko bakarrik behar zutelako.

ZER GERTATU ZEN HIRIAK HANDITU ZIRENEAN?

- a) Ez zen ezer gertatu. Denak berdin-berdin jarraitu zuen.
- b) Hiriak handitu zirenean elkarren adiskide egin ziren.
- c) Hirien arteko gerrak sortu ziren.
- d) Hiriak elkartu egin ziren inolako arazorik gabe.

ORDENATU ERREINU HAUEK:

BABILONIAKO INPERIOA	AKKAD-EN ERREINUA	PERTSIAR INPERIOA	ASIRIAR INPERIOA
----------------------	-------------------	-------------------	------------------

1

2

3

4

AUKERATU IDAZKERARI BURUZKO ESALDI ZUZENAK.


- K.a. 3500. urte inguruan agertu zen.
- Piktograma izeneko irudiak erabiltzen zituzten.
- Denborarekin piktogramak sinplifikatu egin ziren eta sinbolo bilakatu ziren.
- Sinplifikatutako idazkerari idazkera kuneiformea deitzen zaio.
- Paperaren gainean idazten zuten arkatzekin.
- Buztinaren gainean idazten zuten egurrezko puntzoiekin.



Idazkera kuneiformea.

MESOPOTAMIAKO ARTEA:


Arkitekturan “zigurat” izeneko tenpluak eta jauregiak eraiki zituzten. Tenplu hauek mailakatutako terraza batzuk ziren. Jauregiak tenpluen antzekoak ziren, baina gune sakraturik gabe. Arkua eta bobeda ere asmatu zituzten.



Eskulturan, errege-erreginei eta jainkoei buruzko estatuak egin zituzten. Nahiko txikiak izaten ziren. Aurpegiaren eta gorputzaren arteko proportzioari ez zaio eusten. Aurpegi eta begi handiak dituzte. Normalean ez dira biluzik agertzen. Metala lantzen zutenez (**metalurgia**) metalezko eskultura ezberdinak ere egin zituzten. Metalezko piezak egiteko urrea, brontzea eta kobrea bezalako metalak erabili zituzten.

Zeramika ere landu zuten eta buztinezko ontziak, edalontziak, platerak... egin zituzten.

Erliebe-lanak garatu zituzten gizarteko gertaera handien berri emateko. Ehizako eta gerrako eszenak dira nagusi, baina gai erlijiosoak ere agertzen dira.



Iritsi zaizkigun **margolanak** horma-pinturen bidez egin zituzten. Batez ere ospakizunei eta gazteluetako bizimoduari buruzkoak dira. Estatuak ezaugarri beretsuak dituzte.

AUKERATU ERANTZUN ZUZENAK:

- Bobeda eta arkua asmatu zituzten.
- Zigurat izeneko tenpluak eraiki zituzten.
- Proportzioak mantentzen zituzten.
- Erлиеak egin zituzten.
- Ziguratek mailakatutako terrazak zituzten.
- Pobre eta esklabuei buruzko eskulturak egiten zituzten.
- Errege-erreginei eta jainkoei buruzko eskulturak egin zituzten.
- Jauregietako hormetan marrazten zuten.
- Mihisea (lienzo) erabiltzen zuten margotzeko.
- Erлиеak egin zituzten.
- Urrea, brontzea eta kobrea bezalako metalak erabiltzen zituzten apaingarriak egiteko.
- Artelanetan gerra eta ehizako eszenak ere margotzen zituzten.
- Kristalezko ontziak egiten zituzten.
- Zeramikako ontziak, platerak... egin zituzten.

ZER IKASI DUZU MESOPOTAMIAR INPERIOARI BURUZ? IDATZI 10 LERRO